

(+34) 943 424119
San Martin, 36 - 3.B
20005 DONOSTIA

Farmaberri

FARMAZIALARI EUSKALDUNEN ELKARTEA



2004ko otsailaren 29an osatu zen Batzorde Zuzendari berria

Gure elkartearen estatutuen arabera, joan den udazkenean Batzorde Zuzendariaren berritze prozesua ireki genuen, orduan betetzen baitziren hiru urte hautatua izan zenetik.

Prozesua bukatuta Aitziber Etxeberria eta Sonia Saenz de Buruaga lankideek Batzorde Zuzendariko karguak betetzeko onespena eman zuten.

Kide hauekin eta lehendik zeudenekin, 2004ko urtarrilaren 29an, Donostian bildurik, Batzorde Zuzendari berria osatu zen eta guztion artean adostu ondoren hone-la geratu da:

Lehendakari	Pello Iturria
Lehendakariorde	Maritere Omaetxebarria
Idazkari	Unai Berasategi
Diruzain	Aitziber Etxeberria
Batzordekide	Juan Carlos Aristorena
Batzordekide	Sonia Saenz de Buruaga
Batzordekide	M^a Eugenia Sagardoy

Ezer baino lehen, Batzorde Zuzendaria uzten duten Marije Atorrasagasti eta Bea Gaston adiskideak aipatu behar. Marije, Elkarte sortu zenetik, 1995ean hain zuzen, Batzorde Zuzendariko kidea izan da, hasieran batzordekide gisa, gero 1998tik gaur arte diruzaina. Bea ere beti egon da gurekin eta azken hiru hauetan Batzorde Zuzendariko idazkaria izan da. Eskertzea da Elkarteari eskaini dizkioten ahalegin guztiak. Pozgarri da jakitea gurekin se-

gitzen dutela. Adiskide jatorrak ditugu.

Hiru urte hauetan gauza anitz egin ditugu. Besteak beste, Farmaberri aldizkari honen itxura erabat berritu dugu eta, zintzo asko, lau hilabetetik lau hilabetera hartu duzu. Bestalde, Baigorri egin genuen seigarren Batzar Orokorra 2001ean eta Anje Arreguy izan zen hizlari; hidrogeno sulfuroz kutsaturiko gas bat tratatzeko moduz aritu zitzaigun. Zazpigarrena Eibarren egin genuen 2002an eta Alfredo Elorzak hitz egin zigun mostradoreko homeopatiari buruz. Iaz, zortzigarrena, Orion egin genuen eta Iñaki Lasa omendu. Egun hartan, Iñakiren semea aritu zitzaigun bere aitari buruz. Halaber, Farmazia Hiztegia argitaratu genuen 2002ko azaroan. Bestetik, duela urte bat, feuse saria sortu genuen farmaziarekin lotutako euskaraz idatzitako testuen sorrera bultzatzeko. Era berean, Pello Iturriak idatzitako kanabisa-ren monografia bat jaso duzu egun hauetan. Gaur egun Elkarteak 213 kide ditu eta kontuak onbideraturik.

Lerro hauen bidez Batzorde Zuzendariko kideok agurtzen zaituztegu. Saiatuko gara farmazia alorrean euskararen erabilera ahalbideratzen, bultzatzen eta indartzen eta gure lanbidearen izen onari eusten.






Joan den urtean zabaldu zuen Farmazialari Euskaldunen Elkarteak FEUSE sariaren lehenengo deialdia, euskaraz sortutako testu teknikoaren kopurua eta kalitatea gero eta handiagoak izaten laguntzeko asmoarekin. Guztira sei lan aurkeztu ziren non farmaziarekin loturiko gai ezberdinak jorratzen ziren. Azkenean, Arrate Jauregi eta Itziar Fdez. de Larrinoak ardoari buruz egindako lana izan zen epaimahaiak aukeratutakoa.

Hauxe da, hain zuzen, lanaren izenburua: **“Ardoa: onuragarria ala kaltegarria?”**. Egileek ardoaren sortze prozesua aztertzen dute eta erabiltzen diren metodo ezberdinak azaltzen dituzte. Ardoaren konposaketa aztertu ondoren, gizakiongan dituen eraginaren zerrenda luzea jorratzen dute, non arriskuak eta eragin mesedegarriak aipatzen diren.

Lan honekin, Arratek eta Itziarrekin 3.000 euroko saria jasoko dute gure elkartearen hurrengo batzar nagusia ospatuko dugun egunean eta egun horretan bertan, elkartekide guztiok euren lanaren xehetasunak ezagutzeko aukera izango dugu bi farmazialari gazte hauek eskainiko dituzten hitzaldiari esker.

Esan bezala, sei izan ziren FEUSE saria irabazteko asmoz elkartean jaso ziren lanak. Lan horietan farmazialariaren historia, dermofarmazia, fisiologia eta biokimika, bromatologia zein botanika lan-



FEUSE sariaren lehenengo deialdiak baditu irabazleak

Arrate Jauregi eta Itziar Fdez. de Larrinoa gasteiztarrek irabazi dute ardoari buruzko lan batekin

du zituzten deialdiari erantzun zioten lankideek. Lan guztien artean saria jasotzeko merezimendu gehien zuena hautatzeko, honako lagun hauek osatutako epaimahaia antolatu zen:

- Juan del Arco: Bizkaiko Farmazialarien Elkargo Ofizialeko Zuzendari Teknikoa eta FEUSEko kidea.

- Gotzone Barandika: Gasteizko Farmazia Fakultateko Akademi Antolakuntzaren dekanordea.
- Joseba Pineda: Euskal Herriko Unibertsitateko Farmakologia Saileko irakasle kolaboratzaile doktorea eta Osasungoa Euskalduntze-ko Erakundeko kidea.
- Juan Carlos Aristorena: Aita Menni Ospitaleko Far-

mazia Zerbitziburua eta FEUSEko zuzendaritza batzordekidea.

Hemendik zorianak eman nahi dizkiegu sariaren irabazleei eta baita gainontzekoei ere. Dударik gabe, guztiok egindako lanari esker, euskara farmaziaren arlo ezberdinak lan-tzeko gero eta tresna baliagarriagoa izango da.

Aitziber Etxeberria

Farmazialari eta idazle

Oraingoan gure ohizko arlotik irten eta Literaturara joan gaitzke Aitziber Etxeberria farmazialari gaztearen laguntzaz. Aitziber Etxeberriak *Donostia*, "Opera Prima" saria 2003 lortu zuen bere TANGO URDINA ize-neko eleberriaz. Lehenengo orritik harrapatzen zaituen liburu horietakoa da.

Sari literario bat irabaztea ez da edo-zelango gauza, zer suposatu du zuretzat? Bideak zabaldu dizkizu?

Lehenik eta behin, poza. Bestalde, aurrera jarraitzeko indarra eta orain arte egindako lanak balio duela jakitea. Bideak ere, zabaldu dizkit zalantzarik gabe, komunikabideetan azaltzeak jende ezberdin askorengana iristeko aukera ematen dizu eta saria nire lana ezagutzera emateko modu bat izan da.

Noiztik idazten duzu?

Betidanik gustatu izan zait idaztea, txikitandik ekarri dudana zaletasuna izan da. Ezin dut esan egun konkretu batean hasi nintzenik idazten. Txikitan ikastolarako ipuinak idazten nituen, etxekolan moduan, eta haztean berriz, obligazioa gustoko gauza bilakatu eta nahi nuelako idazten hasi nintzen.

Tango Urdina bezalako eleberri bat idazteko prozesua nolakoa da?

Prozesu luzea izan da nire kasuan. Bi urte eman ditut eleberria idazten. Egia esan, hasera batean, ez nuen buruan eleberri bat idaztea, nire lehen asmao ipuin luze bat idaztea zen, baina azkenean, istorioak bultzaturik eleberri bat egiten bukatu nuen. Tarteka idatzitako eleberria izan da beraz, eta horrek prozesua dexente luzatu du.

Gaurkotasunean finkatutako istorioa kontatzen diguzu, Farmazian egiten duzun lanak laguntzen dizu pertsonaiak aukeratzekoan?

Pertsonaia eta hari nagusia Iruñean bizitzen egon nintzeneko oroitzapenetan oinarriturik dago, orduko bizipen eta



sentsazioetan. Hala ere, farmazian lan egiteak izan du bere eragina ere, azken finean, gure inguruan bizi diren pertsonen istorio txikien jakitun bilakatzen baikara sarritan farmazialariak. Ezagutza horrek, nire pertsonaien detaile txikiak osatzeko balio izan didala uste dut.

Idazteak zer ematen dizu?

Idazteak, neurri handi batean, askatasuna ematen dit. Nire eguneroko arazoak edo errutina alde batetara utzi eta fantasiazko mundu paralelo batean sartzeko aukera. Idaztean niregan eragirik ez duen errealitate birtual baten murgiltzen naiz, une batez beste *persona* batean bilakatuz eta horrek ondo pasatzeko mila aukera ematen dizkit.

Eta ezer kentzen al dizu?

Oraingoz ez zait iruditzen ezer kentzen didanik. Gogoko dudalako, niretzako dibertigarria delako idazten dut eta beraz, idazten ematen dudana denbora ondo aprobetxaturiko dela iruditzen zait.

Kontatzean datza garrantzia edo zer kontatzen duzun inporta zaizu gehien?

Niretzat, zerbait besterik gabe idazteak baino, kontatzen duzunak du garrantzia. Nire ustetan, idazten duzunean, zerbait esaten duzu beti, mezu bat igortzen duzu, nahiz eta munduko gau-

zarik sinpleena edo txorakeria handiena izan, beraz garrantzitsua da zerbait idazten duzunean zer esaten duzun ondo mamitua izatea.

Nahiz eta bakardadeaz eta etxe barneko biolentziaren ari den kondaira izan uste duzue, esperantza izpirik ere erakusten digula, dena ez dala bukatu dirudi. Ateak zabalik geratzen dira?

Bai noski, nire intentzioa hori zen behintzat. Izatez pertsona baikortzat dut nire burua eta eleberrian azaltzen diren gaiak, bakardadea, komunikaziorako zailtasuna, biolentzia... tristeak edo gogorak badira ere, ez dut uste irakurlea sentsazio garrantz batekin geratzen denik. Eleberrian badute lekua umoreak eta esperantzak ere.

Diotenez Jorge Oteizak eskultoreak, Bitoriano Gandiaga poetari idazteko agintzen zion, herri honetan oso gutxi idazten zen herrian idazteko ahalmena zuenak nolabaiteko idazteko obligazioa zuelako.

Aitziberri ere halako zerbait eskatuko genioke, berak baduelako idazteko behar den hori, eta era berean gu, oso gutxi irakurten dugunok, herri honetan gu ere, gure egunerokotasunetik atera, zainketa farmazeutikoa, dosifikazio sistema pertsonalizatuak etabar alde batera utzi eta beste mundu honetan murgiltzeak bere ordaina emango digu, gustokoa izango dugu.



Aurtengo Batzar Orokorra Bilbon

Javier Saenz de Buruaga omenduko dugu

Atsegin handiz jakinarazten dizuegu datorren MARTXOAREN 28an, IGANDEA, FARMAZIALARI EUSKALDUNEN ELKARTEAREN IX. Batzar Orokorra eta urteroko jai eguna Bilbon ospatuko dugula, BIZKAIKO FARMAZIALARIEN ELKARGO OFIZIALEAN, haiz zuzen ere. Egun berean, JAVIER SAENZ DE BURUAGA lankidea omenduko dugu.

Euskal Administrazio Sanitarioa sortu zenetik Javierrek egin-dako ibilbide luzean kargu asko izan zituen. Gure lanbidearen zirrikitu guztiak ezagutzen zituen eta Farmazia, jendearen bizikaltatea hobetzeko bizibide aproposa zela uste zuen. Eten-gabe borrokatu zuen ideia horren alde, esparru guztietan; berak uste osoa baitzuen Farmazia, Osasun Publikoko eremu garrantzitsua zela, irekia eta gizartearekiko engaiatua.

Iñaki Azcunak eta Javier bere lankide minak Euskal Sanitateko garairik interesgarrienak partekatu zituzten.

Omenaldi eta esker on anitz jaso ditu Javierrek; horien artean, Sanitatearen Gurutze Gorena Madrilan, 1999an.

Zoritxarrez, 2002ko abenduaren 28an, zendu zen. Gizon onbera eta zintzoa, gure elkartekide izatea ohore handia izan da guretzat.

Martxoaren 28an, bada, Batzar Orokorra egin ondoren, SONIA SAENZ DE BURUAGA bere alabak hitz egingo digu aitari buruz. Egitaraua eta gainerako zehaztasunak hurrengo egunetan jasoko dituzu; beraz, adi egon: datorren martxoaren 28an, Bilbon duzu hitzordua. Oso ongi pasatuko duzu.

Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea (OEE)

XIV. Osasun Jardunaldiak

Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak (OEE) antolatzen dituen XIV. Osasun Jardunaldiak Lekeition izango dira maiatzaren 6an eta 7an. Orain arte bezala, jardunaldiak osasun arloan lan egiten duten profesional euskaldun guztientzat daude zabalik.

Aukeratu den gaia "Alergia" da. Aurreko urteetan bezala tailer praktiko batzuk antolatu dira: Espirometria, Anafilaxia, Test kutaneoak eta Azaleko alergiak.

Informazio gehiago, OEEren web orrian: www.oeeegunea.org, eta harremanetarako telefonoa: 946035860 (17etik 22etara).

Haurdunaldian, esteroideak ez diren antiinflamatzailak eta azetilsaliziliko azidoak

Aborto arriskua asko handitzen dute

Duela gutxi (2003ko abuztuaren 16an) "British medical journal"en argitaratu zen Estatu Batuetan eginiko inkesta. Haurdun zeuden 1055 emakumeek parte hartu zuten inkesta honen arabera, esteroideak ez diren antiinflamatzailak eta azetilsaliziliko azidoak %80ean igotzen du aborto arriskua.



Galdeketa haurdun zeudela jakin bezain pronto egin zitzaien; Kaliforniako osasun programa baten barruan. Sortze-garaian edo haurdunaldi-garaian antiinflamatzailak hartu zituzten 53 emakume topatu ziren (%5-a), eta AINE honen aborto arriskua %80ean igotzen dutela ikusi zen. AINEak eta aborto oraindik indartsuago lotzen ziren, AINEak sortze garai inguruan erabili baziren edo eta aste bete baino gehiagoz erabili baziren. Azetilsaliziliko azidoa ere aborto arriskuarekin lotzen da.

Parasetamola erabiltzea ez zen lotu aborto arriskua handiagotzearekin, ez haurdunaldiko garaian araberan ez eta parasetamola erabili den denboraren araberan ere. Beraz, haurdun dauden emakumeetan aukerako tratamendua parasetamola da minaren eta sukarraren aurrean. Parasetamola ongi pasatzen da plazentaren baina, ez da ikusi eragin teratogenikorik duenik, baina dosi altuetan fetorengan gibebelesioa sor dezakela esan behar da.